

Kostuen Egitura

Gure kostu-iturriak hirutan bana ditzakegu: alde batetik, negozioa hasteko ordaindu beharreko behin-behineko kostuak daude: aplikazioa egin eta eskuragarri jartzearenak. “Yeeply” aplikazio-garapenean laguntza emateko taldearen arabera, sare sozial bat sortzearen kostua 15.000€ eta 25.000€ ingurukoa da, eta honeri aplikazioa Google Play-n jartzeko 20€ prezioa gehitu behar zaio.

Kostu finkoen aldetik, bakoitzak bere etxetik lan egingo dugunez jada ditugun ordenagailuekin, erabiltzaileak konektatzeko sarea mantentzeko kostua ordaindu beharko genuke soilik. Gure kostu-iturri nagusia, ordea, hiztun natibo bakoitzari erabiltzaile harpidedun batekin lan egiteagatik ordaindu beharrekoa da (erabiltzaile harpidedun eta hiztun natiboen kopuruak orekatuta daudela suposatuz, hilean 1,50€-koa izango litzateke natibo bakoitzeko); hau kostu aldakorra da, hilabete bakoitzean aplikazioak dituen erabiltzaile kopuruaren araberrakoa delako.



Diseinua (irudi guztiak CC lizentzia dute):
Lur planetaren irudia: Linuxerist
Bunbuiloa: Ilya, Simpleshow Foundation-en